



UDALBATZARRA/PLENO MUNICIPAL Nº 14/2020

L A S A R T E - O R I A K O
UDALBATZARRAK **2020eko**
ABENDUAREN 10ean EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIAREN AKTA.

ACTA DE LA **SESIÓN ORDINARIA**
CELEBRADA POR EL PLENO MUNICIPAL
DEL AYUNTAMIENTO DE LASARTE-
ORIA EL DÍA **10 DE DICIEMBRE DE 2020.**

ETORRITAKOAK:

ASISTENTES:

ALKATE-LEHENDAKARIA:
EL ALCALDE-PRESIDENTE:

D. Agustín Valdivia Calvo

(PSE-EE-PSOE)

ALKATEORDEAK:
TENIENTES DE ALCALDE:

D. David Mateos Jimenez jn.
D^a Lourdes Acevedo Beldarrain and.
D^a Maite Iglesias Sánchez and.
D^a Nuria Fernandez Castrillo and.

(PSE-EE-PSOE)
(PSE-EE-PSOE)
(PSE-EE-PSOE)
(PSE-EE-PSOE)

ZINEGOTZIAK:
CONCEJALES:

D^a. Nagore Duran Urbistondo and.
D. Jesús Alonso Ocariz jn.
D. Iñigo Zabaleta García jn.
D. Jon Martin Tejeria jn.
D^a Uxue Loinaz Urruzola and.
D. Joxe Ramon Pikabea Bereziartua jn.
D^a Estibaliz Garmendia Arrieta and.
D. Jon Antxordoki Rekondo jn.
D. Boris Nogales Benito jn.
D^a Estitxu Alkorta Barragán and.
D. David Ares Rodriguez jn.
D^a Tania Rodriguez Gonzalez and.

(PSE-EE-PSOE)
(PSE-EE-PSOE)
(PSE-EE-PSOE)
(EH BILDU)
(EH BILDU)
(EH BILDU)
(EH BILDU)
(EAJ-PNV)
(EAJ-PNV)
(EAJ-PNV)
(ELOP)
(ELOP)

IDAZKARIA:
SECRETARIO:

D. Fco. Xabier A. Egea Jauregi jn.

EZ ETORRIAK:

NO ASISTENTES:

KONTUHARTZAILEA:

D. Ion Murua Guinea jn.



Lasarte-Oriako Udaletxeko Batzar-Aretoa, 2020eko ABENDUAREN 10eko 18:30 zirelarik, alde zuretik horretarako deialdia eginda, Lasarte-Oriako Udalbatzar osoa bildu zen, Agustín Valdivia Calvo Alkate jaunaren lehendakaritzapean, gorago aipatzen diren alkateordeak eta zinegotziak bertan zirela, eta nik urgatzita, Francisco Xabier A. Egea Jauregi idazkari jaunak, geroago esango diren erabakiak hartzeko.

Udalbatzarra eratzeko "quórum" nahikoa badagoenez gero, Alkate jaunak eratu deklaratu du udalbatzarra, eta, haren aginduz, bilkurako gai-zerrendan sartutako gaiak tratatzeari ekiten zaio.

1.- 2020 EKITALDIAN KREDITUAK ALDATZEKO GAUR ARTE BIDERATU DIREN DOSIERREN BERRI EMATEA.

Ekonomiako, Ogasuneko eta Ondareko Batzarre Informatiboak eta Kontuetako Bereziak 2020ko azaroaren 30ean igorritako diktaminaren berri ematen da.

Kredituak aldatzeko espediente hauen berri ematen da:

Lasarte-Oriako Udalaren 2020(e)ko aurrekontuko 1. KREDITU GEHIGARRIAK Espedientea (Alkatetza), 383.040,23 eurokoa, Alkateak 2020ko azaroaren 23(e)an emandako ebazpenaren bidez onetsia.

Udalbatzarra jakitun geratzen da.

2.- ETORKIZUNEN AURREKONTUAK KONPROMISO-KREDITUAK ALDATZEKO PROPOSAMENA.

Ekonomiako, Ogasuneko eta Ondareko Batzarre Informatiboak eta Kontuetako Bereziak 2020ko azaroaren 30ean igorritako diktaminaren berri ematen da.

En la Sala de Plenos del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, siendo las 18:30 horas del día 10 de DICIEMBRE de 2020, previa citación al efecto, se reunió el Pleno Municipal del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde D. Agustín Valdivia Calvo, con la asistencia de los Tenientes de Alcalde y Concejales que arriba se relacionan, y asistidos de mí, el Secretario D. Francisco Xabier A. Egea Jáuregui, para tomar los acuerdos que luego se dirán.

Existiendo "quórum" suficiente para la constitución del Pleno, el Sr. Alcalde declara constituido el Pleno y de su orden se pasa a tratar sobre los asuntos incluidos en el Orden del Día.

1.- DACIÓN DE CUENTA DE LOS EXPEDIENTES DE MODIFICACIÓN DE CRÉDITOS CURSADOS HASTA LA FECHA DEL EJERCICIO 2020.

Se da cuenta del dictamen emitido por la Comisión de Economía, Hacienda, Patrimonio y Especial de Cuentas emitido el 30 de noviembre de 2020.

Se da cuenta de los siguientes expedientes de Modificación de Créditos:

Expediente de CREDITOS ADICIONALES (Alcaldía) nº 1 del presupuesto 2020 del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, por un importe de 383.040,23 euros, aprobado por Resolución de Alcaldía de fecha 23 de noviembre de 2020.

El Pleno se da por enterado.

2.- PROPUESTA MODIFICACIÓN CRÉDITOS DE COMPROMISO PRESUPUESTOS FUTUROS.

Se da cuenta del dictamen emitido por la Comisión de Economía, Hacienda, Patrimonio y Especial de Cuentas emitido el 30 de noviembre de 2020.



Indarrean dagoen aurrekontuan konpromiso-kredituak aldatzeari buruzko proposamena aztertu da.

Udal Kontu-hartzaileak egindako aldeko txostena eta onespenez proposamena ere aztertu ditugu, bai eta dossierrean egindako gainerako jardunak ere.

Bozkatzera jarrita Lasarte-Oriako Udalbatzarrak AHO BATEZ honako AKORDIOAK hartzen ditu:

LEHENIK.- 2019ko eta 2020ko ekitaldietako gastuaren faseak Eusko Jaurlaritzak ezarritako gastu-plan berrira egokitzea.

BIGARRENIK.- Ondoko partidetan konpromisuko kredituak aldatzea proposatzen dira:

Vista la propuesta relativa a la modificación de créditos de compromiso del vigente Presupuesto.

Visto el informe favorable emitido por el Interventor municipal, la propuesta de aprobación formulada y demás actuaciones practicadas en el expediente.

Sometido a votación el Pleno del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, por UNANIMIDAD ACUERDA lo siguiente:

PRIMERO.- Ajustar las fases del Gasto de los ejercicios 2019 y 2020 al nuevo plan de gastos establecido por el Gobierno Vasco.

SEGUNDO.- se propone un cambio de los créditos de compromiso de las siguientes partidas:

DESKRIBAPENA	Hasierako Aurrek. <i>Ppto Inicial</i>	Gehiketak <i>Aumentos</i>	Gutxitzeak <i>Disminuciones</i>	Behin betiko Aurrekontua Presupuesto Definitivo	
5 0802.78001.15100 2021 (12) Basaundi bailarako Hiri berroneratzeko diru-laguntzak Subvenc. Regeneración Urbana Basaundi Bailara	391.400,00	2021	0,00	-391.400,00	0,00
GUZTIRA // TOTAL	391.400,00		0,00	-391.400,00	0,00

Baja emateko konpromiso-kredituen finantzaketa partida honetatik dator:

La financiación de los CREDITOS DE COMPROMISO dados de baja procede de la siguiente partida:

DESKRIBAPENA	Hasierako Aurrek. <i>Ppto Inicial</i>	Gehiketak <i>Aumentos</i>	Gutxitzeak <i>Disminuciones</i>	Behin betiko Aurrekontua Presupuesto Definitivo	
7 0802.710.01.000.00 2021 (2) Eusko Kauraritzaren Basaundi bailarako Hiri berroneratzeko diru-laguntzak Subvenc. Gob. Vasco Regeneración Urbana Basaundi Bailara	450.000,00	2021	0,00	-450.000,00	0,00
GUZTIRA // TOTAL	450.000,00		0,00	-450.000,00	0,00



3.- UDAL LANGILEEN 2020KO ORDAINSARI-IGOERAREN ONARPENA.

Barne Erregimeneko, Herritarren Parte Hartzeko eta Gardentsauneko Batzorde Informatiboak, 2020ko azaroaren 9an igorritako diktaminaren berri ematen da.

Batzordearen lehendakariak aurkeztutako proposamena ikusi da. Horren bidez, Lasarte-Oriako Udalaren zerbitzura dauden langileen 2020. urteko ordainsari-igoera zehazten da.

Sektore Publikoaren eremuan ordainsarien arloko premiazko neurriak onartzen dituen urtarilaren 21eko 2/2020 Errege Lege Dekretuaren 3. artikulua aukera ematen du sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsarien gehikuntza globalaren marjina ehuneko bikoia (% 2,00koa) izan dadin 2019ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko, bi konparazio-aldietarako homogeneotasun-baldintzetan, bai langile-kopuruari dagokionez, bai antzinasunari dagokionez.

Aurrekoa kontuan hartuta, eta Lasarte-Oriako Udalak gaur egun duen ekonomia-, finantza- eta aurrekontu-egoera kontuan hartuta, 2020ko ekitaldian bere gain har dezake langileen ordainsarien hazkundea, Estatuko oinarritzko araudiak baimendutako gehieneko mugaraino.

Bozkatzera jarrita Lasarte-Oriako Udalbatzarrak, aldeko hamabost botorekin (8 PSE-EE-PSOE, 4 EH BILDU, 3 EAJ-PNV) eta bi abstentzioarekin (2 ELOP) honako AKORDIO hau hartzen du:

Lehenik.- Lasarte-Oriako Udalaren zerbitzura dauden langileen ordainsari osoen ehuneko biko (% 2,00) igoera ezartzea 2020rako, eta 2020ko urtarilaren 1etik aurrerako ondorioekin aplikatzea, 2019ko abenduaren 31n indarrean zeudenekin alderatuta.

3.- APROBACIÓN DEL INCREMENTO RETRIBUTIVO DEL PERSONAL MUNICIPAL EN EL AÑO 2020.

Se da cuenta del dictamen emitido por la Comisión Informativa de Régimen Interior, Participación Ciudadana y Transparencia en sesión celebrada el 9 de noviembre de 2020.

Vista la propuesta presentada por la Presidenta de la Comisión por la que se determina el incremento retributivo del personal al servicio del Ayuntamiento de Lasarte-Oria en el año 2020.

El artículo 3 del Real Decreto-Ley 2/2020, de 21 de enero, por el que se aprueban medidas urgentes en materia de retribuciones en el ámbito del Sector Público, posibilita un margen de incremento global de las retribuciones del personal al servicio del sector público de hasta el dos por ciento (2,00%) respecto de las vigentes a 31 de diciembre de 2019, en los términos de homogeneidad para los dos periodos de comparación, tanto por lo que respecta a efectivos de personal como a la antigüedad del mismo.

Teniendo en cuenta lo anterior, y la actual situación económica, financiera y presupuestaria en la que se encuentra el Ayuntamiento de Lasarte-Oria, es posible asumir en el ejercicio 2020 el crecimiento de las retribuciones de su personal hasta el límite máximo permitido por la normativa básica estatal.

Sometido a votación el Pleno del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, con quince votos a favor (8 PSE-EE-PSOE, 4 EH BILDU, 3 EAJ-PNV) y dos abstenciones (2 ELOP), ACUERDA lo siguiente:

Primero.- Fijar para el año 2020 y aplicar con efectos desde el día 1 de enero de 2020 un incremento del dos por ciento (2,00%) de las retribuciones íntegras del personal al servicio del Ayuntamiento de Lasarte-Oria respecto de las vigentes a fecha de 31 de diciembre de 2019.



Bigarrenik.- Sortutako eta udal-langileei ordaindu gabeko ordainsariengatik atzerapenak 2020ko azaroko nominan ordainduko dira.

4.- LASARTE-ORIAKO ETA DONOSTIAKO UDALERRIAK BATERAGARRI EGITEKO PLANAREN ALDAKETA, LASARTE-ORIAKO PLANGINTZAKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO "A-33 TERESATEGI" ETA "AÑ.10 RECALDE (II)" EREMUEI ETA DONOSTIAKO HAPOKO BIDE-SISTEMA OROKORRAREN BEHIN BETIKO ONARPENA.

Hirigintza, Obra eta Ingurumen Batzordeak 2020ko azaroaren 30ean egindako ohiko bilkuran emandako diktaminaren berri ematen da.

2018ko azaroaren 18an, Lasarte-Oriako Udaleko Osoko Bilkurak behin-behinean onartu zuen Lasarte-Oriako eta Donostiako udalerriak Bateragarri egiteko Plana, Lasarte-Oriako Plangintzako Arau Subsidiarioetako A.33 Teresategi eremuei eta Errekalde (II) eta Donostiako Hiri Antolamendurako Plan Orokorren Bide Sistemari dagokienez.

Bateragarritasun Planaren behin-behineko onarpena 2018ko azaroaren 18an egin zen Lasarte-Orian.

Behin onartuta, Bateragarritze Plana eta Ingurumen Azterlan Estrategikoa Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailari bidali zitzaizkion, ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura amai zedin. Era berean, Bateragarritze Plana Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendurako Batzordeari bidali zitzaion.

Ingurumen Administrazioaren zuzendariaren 2019ko urriaren 29ko Ebazpenaren bidez, bateragarri egiteko planaren ingurumen-adierazpen

Segundo.- Los atrasos por las retribuciones devengadas y no satisfechas al personal municipal se abonarán en la nómina correspondiente al mes de noviembre de 2020.

4.- APROBACIÓN DEFINITIVA DE LA MODIFICACIÓN DEL PLAN DE COMPATIBILIZACIÓN DE LOS MUNICIPIOS DE LASARTE-ORIA Y DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN REFERIDO A LOS ÁMBITOS "A-33 TERESATEGI" DE LAS NN.SS. DE PLANEAMIENTO DE LASARTE-ORIA Y "AÑ.10 RECALDE (II)" Y SISTEMA GENERAL VIARIO DEL P.G.O.U. DE DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN.

Se da cuenta del dictamen emitido por la Comisión de Urbanismo, Obras y Medio Ambiente en sesión ordinaria celebrada el 30 de noviembre de 2020.

Con fecha 18 de noviembre de 2018 el Pleno del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, aprobó con carácter provisional el Plan de Compatibilización de los municipios de Lasarte-Oria y Donostia-San Sebastián referido a los ámbitos A.33 Teresategi de las NNSS de Planeamiento de Lasarte-Oria y el AÑ.10 Recalde (II) y Sistema Viario del P.G.O.U. de Donostia-San Sebastián.

La aprobación provisional del Plan de Compatibilización se produjo el 18 de noviembre de 2018 en el municipio de Lasarte-Oria.

Una vez aprobado, se remitió el Plan de Compatibilización y el Estudio Ambiental Estratégico al Departamento de Medio Ambiente del Gobierno Vasco, a fin de que se finalizara el procedimiento de evaluación ambiental estratégica. Así mismo, se procedió a remitir el Plan de Compatibilización a la Comisión de Ordenación del Territorio del Gobierno Vasco.

Por Resolución de 29 de octubre de 2019, del Director de Administración Ambiental, se formula declaración ambiental estratégica del Plan de compatibilización,



estrategikoa egin zen. Adierazpen horrek aldeko balorazioa ematen dio ingurumen-alderdiak bateragarri egiteko planaren proposamenean sartzeari.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak, 2020ko apirilaren 8ko bilkuran, Planaren aldeko txostena egin zuen, planaren alderdi lotesleei dagokienez.

Ekainaren 1ean, Hirigintza Batzordeak Planaren behin betiko onarpenaren aldeko irizpena eman zuen.

Gaia ez da Udalbatzaren osoko bilkuran jorratu; izan ere, Donostiako Udalak aldaketa batzuk egin nahi izan zituen antolamendu xehatuan, Lasarte-Oriako Udaleko teknikarien ustez Urbanizazio Proiektuan sar zitezkeen gai txikiei eragiten zietenak.

Donostiako Udalak eskatutako aldaketak biltzen dituen dokumentua aurkeztu ondoren, udal-arkitektoak eta hirigintzako buruak dokumentuaren aldeko txostena egin dute berriro.

Eztabaida txandan EAJ-PNV-ko Antxordoki jaunak hartzen du hitza esateko egiteke dagoen "Leroy Merlin" proiektuak lanpostuak sortuko dituela eta gutxi gora behera 150.000 mila euroko tasak ordainduko dizkiola udalari. Gaineratzen du lanpostu horietatik % bat lasarteoriatarrak izan beharko direla, honela langabezia jetsiz.

EH BILDUko Martin jaunak esaten du ez dutela proiektua babestuko, lasarteoriarren inolako partaidetzarik gabe egin delako. Gaineratzen du hirigintzako herritarren aholku batzordeak proiektuaren aurkako jarrera azaldu duela. Pandemiaren erdian honelako proiektu bat ekartzeak bai ekonomikoki bai sozialki arriskuak ekarriko dizkiola herriari. EH BILDUk ez du proiektua babestuko bertako merkataritzan oinarritutako eredu sozioekonomiko batean sinisten dutelako.

Bozkatzera jarrita Lasarte-Oriako Udalbatzarrak aldeko hamaika botorekin (8 PSE-EE-PSOE, 3 EAJ-PNV) eta aurkako sei botorekin (4 eh Bildu, 2 Elop) honako hau ERABAKITZEN du:

LEHENA.- Lasarte-Oriako eta Donostiako udalerriak Bateragarri egiteko Plana behin betiko onartzea, Lasarte-

que viene a valorar con carácter favorable la integración de los aspectos ambientales en la propuesta del Plan de Compatibilización.

La Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, en su sesión de fecha 8 de abril de 2020, informó favorablemente el Plan, en relación a los aspectos de carácter vinculante del mismo.

Con fecha 1 de junio la Comisión de Urbanismo dictaminó favorablemente la aprobación definitiva del Plan.

No se trató el tema en el pleno de la Corporación, ya que el Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián quiso efectuar unas modificaciones en la ordenación pormenorizada que afectaban a cuestiones menores, que a juicio de los técnicos municipales del Ayuntamiento de Lasarte-Oria bien pudieran haber sido integradas en el Proyecto de Urbanización.

Una vez presentado el documento con las modificaciones exigidas por el Ayuntamiento de Donostia, se ha vuelto a informar el documento favorablemente por la arquitecta municipal y por el Jefe de Urbanismo.

Sometido a votación el Pleno del Ayuntamiento de Lasarte-Oria con once votos a favor (8 PSE-EE-PSOE, 3 EAJ-PNV) y seis votos en contra (4 EH BILDU, 2 ELOP) ACUERDA lo siguiente:

PRIMERO.- Aprobar con carácter definitivo el Plan de Compatibilización de los municipios de Lasarte-Oria y Donostia-San Sebastián referido a los ámbitos A.33



Oriako Plangintzako Arau Subsidiarioetako A.33 Teresategi eremuei eta Errekalde (II) eta Donostiako Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren Bide Sistemari dagokienez.

BIGARRENA.- Onespren-erabakia eta hirigintza-arauak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udalaren egoitza elektronikoa eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko zabalkunde handieneko egunkari batean argitaratzea.

HIRUGARRENA.- Bateragarritasun Planaren kopia osoa bidaltzea COPTVri.

LAUGARRENA.- Gipuzkoako Foru Aldundiko plangintza-erregistrora Bateragarritze Planaren kopia osoa bidaltzea.

BOSGARRENA.- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 26-2 artikuluan eta lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 7.1 artikuluan aurreikusitako ingurumen-ebaluazio estrategikoari buruzko informazioa.

Teresategi de las NNSS de Planeamiento de Lasarte-Oria y el AÑ.10 Recalde (II) y Sistema Viario del P.G.O.U.de Donostia-San Sebastián.

SEGUNDO.- **Publicar** el acuerdo de aprobación y las Normas Urbanísticas en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, en la sede electrónica del Ayuntamiento y en un diario de mayor difusión del Territorio histórico de Gipuzkoa.

TERCERO.- **Remitir** a la COPTV una copia completa del Plan de Compatibilización.

CUARTO.- **Remitir** al registro de planeamiento de la Diputación Foral de Gipuzkoa una copia completa del Plan de Compatibilización.

QUINTO.- **Publicar** en el Boletín Oficial de Gipuzkoa la información relativa a la evaluación ambiental estratégica prevista en el artículo 26-2 de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental y en el artículo 7.1. del Decreto de 46/2020, de 24 de marzo, de regulación de los procedimientos de aprobación de los planes de ordenación del territorio y de los instrumentos de ordenación urbanística.

En el turno de explicación de voto toma la palabra el Sr. Ares del grupo municipal ELOP para decir que ellos apoyan al comercio local. Que este proyecto en estos momentos es contrario a las políticas de sostenibilidad. Que si bien este proyecto se aprobó con anterioridad a la ley del Gobierno Vasco para limitar la implantación de grandes superficies, vista la situación que estamos viviendo actualmente habría que replantearse el tema. Cree que el gobierno municipal muestra una postura contradictoria ya que apoya al pequeño comercio pero a su vez da vía libre para un proyecto como este.

A continuación toma la palabra el Sr. Mateos del grupo municipal PSE-EE-PSOE para decir que se creará empleo para l@ lasarteoriatarras y que no entiende como en Hernani o en Oiartzun por ejemplo, gobernados por EH BILDU no hay problema para ubicar proyectos similares y en Lasarte-Oria si. Dice que se ha buscado que la operación sea lo más beneficiosa para Lasarte-Oria. Enumera todos los proyectos que el gobierno municipal ha llevado a cabo en apoyo del comercio local como por ejemplo: Bonos consumo, reducción de tasas, ayudas compra material escolar para su uso en el comercio local, feria del pintxo etc .



5.- BOZERAMAILEEN BATZORDEAK OSOKO BILKURAN ONARTU ONDOREN, "SAHARAREKIN ELKARTASUNA LASARTE-ORIA MUGIMENDUAK" AURKEZTUTAKO MOZIOA – "MENDEBALDEKO SAHARAKO SU-ETENAREN AMAIERA". AURKEZTUTAKO ERAKUNDE ADIERAZPENA.

Alkate jaunak adierazpena irakurtzen du.

MOZIOA

2020ko azaroaren 13an, Marokoko Indar Armatuek nahita urratu zuten 1991tik indarrean dagoen Marokoko Erresumaresn eta Fronte Polisarioaren arteko Su Eten Akordioa.

Marokoko Erresumak Guerguerateko legez kanpoko pasabidera indar militarrek bidali zituen, duela lau astetik eremu horretan manifestazioak egiten ari ziren saharar herritarrak erreprimitzera.

Marokok 2001ean ireki zuen pasabide hori, Nazioarteko Zuzenbidea urratuz. Nazio Batuen Bake Akordioak (1988) eta Marokoren eta Fronte Polisarioaren arteko akordio militarrek Marokoko harresi militarrean pasabideak irekitzea debekatzen dute.

Indar marokoarren ersoaldiak eta Fronte Polisarioak saharar populazio zibilaren defentsan emandako erantzun legitimoak harresian zehar hainbat liskar eragin ditu. Saharako Errepublikak Arabiar Demokratikoko Presidenteak adierazpen baten bitartez amaitutzat eman du Fronte Polisarioak eta Marokoko Erresumak 1991n sinatutako su-eten konpromisoa.

Gertakari horien aurrean Sahararekin Elkartasuna Lasarte-Oria Mugimenduak, Sahara Euskadi Mugimenduarekin eta Euskadiko Fronte Polisarioaren Ordezkaritzarekin batera:

- **BERRESTEN DUGU** zalantzarik gabeko elkartasuna diogula saharar herriaren eta haren legezko ordezkarik Fronte Polisarioaren borrokari.

5.- PREVIA ACEPTACIÓN DE SU TRATAMIENTO EN EL PLENO POR LA JUNTA DE PORTAVOCES, DECLARACIÓN INSTITUCIONAL PRESENTADA POR LA "SOLIDARIDAD CON EL SAHARA LASARTE-ORIA" – "FIN DEL ALTO EL FUEGO EN EL SAHARA OCCIDENTAL".

Lee la declaración el Sr. Alcalde.

MOCION

El 13 de noviembre de 2020, las Fuerzas Armadas marroquíes violaron deliberadamente el Acuerdo de Acto el Fuego vigente desde 1991 entre el Reino de Marruecos y el Frente Polisario.

El Reino de Marruecos envió fuerzas militares a la brecha ilegal de Guerguerat a reprimir la población civil saharui que se manifestaba desde hace cuatro semanas en la zona denunciando la apertura de dicha brecha.

Marruecos abrió este paso en el año 2001, violando así el Derecho Internacional. El Acuerdo de Paz de Naciones Unidas (1988) y los acuerdos militares entre Marruecos y el Frente Polisario prohíben la apertura de pasos en el muro militar marroquí.

La ofensiva de las fuerzas marroquíes y la legítima respuesta del Frente Polisario en defensa de la población civil saharui ha dado lugar a una serie de enfrentamientos a lo largo del muro marroquí, y a una declaración del Presidente de la República Árabe Saharui Democrática dando por finalizado el compromiso de alto el fuego firmado entre el Frente Polisario y el Reino de Marruecos en 1991.

Ante estos hechos el Movimiento "Sahararekin Elkartasuna Lasarte-Oria" junto al Movimiento "Sahara Euskadi" y la Delegación del Frente Polisario para Euskadi:

- **REAFIRMAMOS** nuestra solidaridad inequívoca con la lucha del pueblo saharui y el Frente Polisario, su representante legítimo.
- **RESPONSABILIZAMOS** al Reino Marroquí de la violación del Alto al



- Marokoko Erresumari **EGOZTEN DIOGU** 1991n Su-Etena apurtu izana eta sortu den eta Magrebeko eskualde osora zabal daitekeen ezegonkortasunaren erantzunkizuna.
- **MINURSO**ri eta Nazio Batuei eremuan segurtasuna eta sahararren giza eskubideen zaintza berma dezatela **ESKATZEN DIEGU**; eta, besterik gabe, autodeterminazio-erreferendumaren bidez, Mendebaldeko Saharako gatazkaren konponbide bidezkoa eta behin betikoa susta dezatela.
- Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordeari Mendebaldeko Saharan gertatzen den guztiagatik dituen erantzukizunak bere gain har ditzala **ESKATZEN DIOGU**; izan ere, Lurralde Ez-autonoma da, Marokok legez kanpo okupatua, NBERen agindupean, eta gatazkan dauden bi aldeak Genevako Hitzarmenaren sinatazaileak dira.
- Espainiako gobernuari Mendebaldeko Sahara "de iure" administratzen duen potentzia gisa duen erantzukizuna bere gain har dezala **EXIJITZEN DIOGU**; eta horren arabera joko dezala, autodeterminazio-erreferendumaren antolaketan eta Saharako biztanleria zibilaren babesean parte aktibo izanik.
- Sahara Euskadi Mugimenduak Fronte Polisarioaren Ordezkaritzarekin batera Saharako Errepublikari Arabiar Demokratikoa babesteko deitzen dituen mobilizazioetan parte hartzera **GONBIDATZEN** ditugu euskal herritarrek.
- Mendebaldeko Saharako bandera Lasarte-Oriako udaletxean zintzilikatzea **ADOSTEN** du.

Bozkatzera jarrita "Sahararekin elkartasuna Lasarte-Oria Mugimenduak" aurkeztutako mozioa, Lasarte-Oriako Udalbatzarral aldeko bederatzi botorekin (4 EH BILDU, 3 EAJ-PNV, 2 ELOP) eta zortzi abstentziorekin (8 PSE-EE-PSOE), **ONARTU** egiten du hura.

Fuego de 1991 y como único responsable de la inestabilidad que se ha generado y que se puede extender a toda la región del Magreb.

- **INSTAMOS** a la **MINURSO** y a las Naciones Unidas a que garanticen la seguridad en la zona, la vigilancia de los Derechos Humanos de la población saharauí y promueva sin más dilación la solución justa y definitiva del conflicto del Sahara Occidental, mediante la celebración del referéndum de autodeterminación.
- **EXHORTAMOS** al Comité Internacional de la Cruz Roja a que asuma sus responsabilidades por todo lo que acontece en el Sáhara Occidental, dado que es un Territorio No Autónomo, ilegalmente ocupado por Marruecos, bajo mandato de la ONU y porque las dos partes en conflicto son firmantes de las Convenciones de Ginebra.
- **EXIGIMOS** al gobierno español a asumir su responsabilidad como potencia administradora "de iure" del Sáhara Occidental y a actuar en consecuencia, siendo parte activa en la consecución del referéndum para el pueblo saharauí y en la protección de la población civil saharauí.
- **INVITAMOS** a la ciudadanía vasca a participar en las movilizaciones de apoyo a la República Árabe Democrática que convoque el Movimiento Sahara Euskadi junto con la Delegación del Frente Polisario.
- **APRUEBA** que la bandera del Sáhara Occidental ondee en el ayuntamiento de Lasarte-Oria.

Sometida a votación la moción presentada por "Solidaridad con el Sáhara Lasarte-Oria" el Pleno del Ayuntamiento de Lasarte-Oria con nueve votos a favor (4 EH BILDU, 3 EAJ-PNV, 2 ELOP) y ocho abstenciones (8 PSE-EE-PSOE) **APRUEBA** la misma.



12.- GALDERA ETA ERREGUAK.

12.- RUEGOS Y PREGUNTAS.

.- ELOP udal taldetik / Por el grupo municipal ELOP:

El sr. Ares:

- 1.- Pregunta sobre la previsión que hay para la aprobación del presupuesto 2021.
- 2.- Huertas ecológicas, parece ser que se está a la espera de informe de Intervención, si todavía no lo hay piden al gobierno municipal es que haga lo posible por desatascar el asunto, ya que la moción se aprobó por una moción presentada por ellos en 2017.

El Sr. Alcalde contesta a las dos preguntas.

.- EH BILDU udal taldetik / Por el grupo municipal EH BILDU:

Martin jaunak:

- 1.- Zapategi 1-3-5 eta Stop Desahucios taldearen idatzia jaso zen, egun ordaintzen ari diren alokairu kopurua mantentzeko bilera bat eskatu zutela alkatetzarekin ea burutu den edo burutzeke dagoen.
Alokairu soziala duten etxebizitza hauen dokumentazioa eskatzen dute.

Contesta el Sr. Alcalde.

Eta beste aztergairik ez dagoenez gero, goiburuan adierazitako eguneko 19:21 direlarik, lehendakari jaunak amaitutzat eman du batzarraldia, eta haren akta hau jaso da. Nik, idazkariak, akta honen edukiaren fede ematen dut.

Y no habiendo más asuntos que tratar, siendo las 19:21 horas del día indicado en el encabezamiento, el Sr. Presidente da por terminada la sesión, de la que se levanta la presente acta, de cuyo contenido yo, el secretario, doy fe.